


ASYLUM

Javier de Isusi




CEAIR
EUSKADI
Euskadiko Errefuxiatuen
Laguntzarako Batzordea

ASTIBERRI







BO!

ZER DUZU,
AMA?



ZER IZANGO DUT BA? ATSO BAT NAIZ,
EZ DUT EZERTARAKO BALIO, ETA ALABEK
ZAHAR-ETXE BATEAN SARTU NAUTE.



AMA... EZ HASI
ATZERA ERE.



NIK, HIL ZEN ARTE ZAINDU
NUEN AMA. ZER USTE DUZU,
ERRAZA IZAN ZELA? EDO
PENTSATZEN DUZU BESTE
ZEREGINIK EZ NUELA?

EZ DUZU COCOAN
NOLA JARRI ZEN
SUKALDEKO
LABANEKIN
MEHATXUKA
HASI ZITZAIGUN
HARTAN,
BAHITUTA
GENUELA OIHUKA?



COCOAN DUT, BAI.
ETA ZU NEGARREZ
EGON ZINEN.

BO!



MESEDEZ,
EZ EZAZU
ZAILAGOA EGIN.

HAUXE BAKARRIK
BEHAR NUEN; ORAIN,
ZUEK ZARETE GAIZKI
PASATZEN ARI
ZARETENAK.







KAR-KAR! AMATXI!
NOIZTIK DAKIZU?

AI, UME... EZ DAKIT BA, JAI
ZINENETIK ESANGO NUKE,
BAINA BERANDUAGO IZANGO
ZEN, NOSKI.



BO, EZKONDUKO ZARELA
KONTATZEKO EZ BADA,
ESADAZU BEHINCOZ
ZERGATIK ETORRI ZAREN,
BETI IZATEN DUZU ETA
MOTIBOREN BAT.



BETI EZ,
AMATXI.

TIRA,
TIRA.



BILBOKO
ETXEAGATIK DA.

ZER,
ZURETZAT NAHI
DUZU?



EZ, EZ... IZEBDA DA, SALDU
EGIN NAHI DU.

ETXEA
NEUREA DA.

BADAKIT, AMATXI, BADAKIT.
BAINA AUZOKOAK ESAN DIO
EROSI EGIN NAHI DUELA,
ETA IZEBAK USTE DU...


HOBE DELA BIZIRIK
NAGOEN ARTEAN SALTZEA;
HARTARA, ARAZO GUTXIAGO
HERENTZIAREKIN, EZTA?









ERBESTERATZEA IHES EGITEA DA, ULERTZEN?... BARRUA URRATZEA... BIHOTZ-ERRAIK GALTZEA, BIZITZA BERA!



NIRI MARINA JARRI ZIDATEN UZTAILAREN 18AN JAIO NINTZELAKO, SANTA MAÑA EGUNEZ; BADA KIZU, OTXANDIOKO ZAINDARIA. BA ESAN DEZAKET BIZITZA AMAITU ZITZAIDALA HAMABOST URTE BETE NITUEN EGUNEAN.



ORDUAN IRUNEN BIZI GINEN; AMAK HANTXE LORTU ZUEN MAISTRA POSTUA, ETA GURE AITA ERE BERTAN EZAGUTU ZUEN. BAINA, NIRE EGUNERAKO, OTXANDIORA JOATEN GINEN BETI, HANGO JAI NAGUSIAK ZIRELAKO.



1921EAN JAIO NINTZEN NI, BERAZ, HAMABOST URTE BETE NITUEN... FRANCOREN ESTATU KOLPEAREN EGUN BEREAN.



JAIETAN BURU-BELARRI MURGILDURIK
GEUNDENEZ, EZ GENION KASU
HANDIRIK EGIN EGUNKARIETAN
KONTATZEN ZUTENARI; ALEGIA,
GASTEIZEN ETA IRUÑEAN KOLPE
MILITARRA GAILENDU ZELA.



HANDIK HIRU EGUNETARA, BI
SOLDADU-ZUTABE KANTONATU
ZIREN ANDIKONAKO PLAZAN;
ERREPUBLIKANOAK, MILIZIANOAK ETA
CUDARIAK ZIREN. ORDUAN HASI GINEN
JABETZEN CERTATZEN ARI ZENAZ.



HALA ERE, NORK
PENTSATU BEHAR
ZUEN OTXANDIORA,
GAUETIK GOIZERA,
GERRA IRITSIA ZELA?

ZUTABEAK HELDU ETA
BIHARAMUNEAN CERTATU
ZEN HURA, UZTAILAREN
22AN. ORANDIK ERE
JAIETAN GEUNDEN.



HEGAZKINAK!
LEHENGOAN PANFLETOAK
ETA GOZOKIAK BOTA
ZITUZTENEN
MODUKOAK!

BIRRIAN
PASATU
DIRA ELIZ
DORREAREN
GAINETIK!



BEITU!
BEITU!

EO!
HOLAAAA!





GOAZEN
PLAZARA!


BAI,
BIZKOR!



HOLAAA!



BAINA -INTSIGNIAK
KENDUTA- HEGAZKIN
HAIEK EZ ZIREN
ERREPUBLIKANOAK.




ETA JAURTI
ZITUZTENAK EZ
ZIREN PANFLETOAK
ETA GOZOKIAK.





BOOM






ALDE EGIN ZUTENEAN,
INFERNU BIZIA UTZI ZUTEN.

KALEAK ETA ETXEAK SUNTSITUTA.
FAMILIA OSOAK MASAKRATUTA... BERROGEITA
HAMAZAZPI LAGUN GUZTIRA; ERDIA INGURU
NESKA-MUTIKOAK, GERRA HARTAZ EZER EZ
ZEKITEN UMEAK.

EZER ULERTU GABE HIL ZIREN.
ERAIL ZITUZTEN HEGAZKINEI AGUR
BEROA EGITEN ARI ZITZAIELA.



MIREN ETA LIBE.



ETA NIRE BIZITZA, ORDURA ARTE
IZAN NUENA, HAIKIN BATERA HIL
ZEN.